

Lehenengo pausua

Euskaldunon Egunkaria, 1991-05-14: 2.

Irakurria dut nonbait, egunkaritan, kirolean bezala, "lehenengo" izatea dela helburu nagusia.

Horrela da kirolean lehenengo bereganatzea; hauxe bait da kirolaren zentzua: txirrindularitzan helmugara lehenengo iristea, atletismoan markarik onena lortzea, futboleko golen poderioz sailkapenean lehen postuan agertzea.

Deportiboki, noski.

Euskal Herriko kazetaritzan bada, ordea, zailtasun berezirik; bertako hizkuntza sustraieratik euskalduna bada ere, adarretatik erdarak joan dira nagusitzen, batez ere azken ehun urte hauetan, eta erdaraz izan ditugu diskriminatuki inposatuak lehen irakurketak legez eta nekez; honek hemen dituen fruituak agerian daude. Denok behar izan dugu erdara bakoitzean irakurtzen ikasi, eta ez jatorrizko euskaran, eta inbutu berezitik atera gara erdarazko letrak bakarrik irakurtzen.

Bitartean izan ditugun egunkariak erdarazkoak izan direnez, hauek bakarrik irakurtzen ditugu.

Erraza da ondorioa ulertzea: Euskal Herrian euskarazko egunkaria egitea apostu latza da, eta lan honetan ari garenok behar dugu helburu bezala *irabazte* hutsa ez den beste zerbait. Kirolean bezala, kirolari txukunak bagara, hasieratik ez irabazteak ez digu adorea hoztuko eta bigarren aukerako izaten *hastea* bera garaipen handia da; gure barruko neurketan ari bait gara, ez Guinness-en agertzeko.

Noizbait eman behar genuen euskaldunok lehenengo pausua.

Laster emango dugu bigarrena.